



EKINTZA, ERALDAKETA SOZIAL ETA PERTSONALA BULTZATZEKO, ETIKA OINARRI HARTUTA

Arlo orokorra

- 1 > Azaroan, Nazioarteko Bake Brigadek eta Mundubat erakundeak deituta, lan-saio batean parte hartu genuen tokiko eta nazioarteko erakundeekin batera. Giza eskubideen defendatzaileen sarearen eta bakearen eraikuntzaren inguruan izan zen saioa, eta helburua giza eskubideen defentsa indartzeko ekimen eta estrategia partekatu posibleak aztertzea izan zen.
- 2 > Abenduan Gipuzkoako SOS Arrazakeriak justizia eta praktika leheneratzaileen inguruan antolatutako jardunaldi batzuetan parte hartu genuen.

Bake eta bizikidetzaren arloa

- 3 > Baketikek bakea eta bizikidetzaren inguruko proiektuekin lanean jarraitzen du Gipuzkoako 8 udalerritan, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako "Bizikidetzaren lantzen" programaren baitan. Ordezari politikoen artean eta herritarren artean elkarrizketa esparruak bideratzeaz gain, hainbat ekintza publiko antolatu dira herri batzuetan memoria eta bizikidetzaren inguruan:

- 4 > [Urnietan](#), abenduaren 10ean (Giza Eskubideen Aldarrikapenaren urteurrena) *In Dialogue* dokumentalaren emanaldi bat antolatu zen, eta ondoren Paul Riosekin solasaldia egin zen. Abenduaren 12an *Gaztedia, memoria eta transmisioa* izenburupean mahai-ingurua egin zen Iker Uson ("Unibertsitateko gazteek Euskadin bizi izan den terrorismoari eta giza eskubideen urraketari buruz dakitena eta duten diskurtsoa" ikerketaren egilea) eta Leire Ostizarekin (EGKko bake eta bizikidetzatza teknikaria).
- 5 > Horrez gain, abenduaren 10, 11 eta 12an lan-saio batzuk egin ziren DBH 4. mailako, batxilergoko eta lanbide heziketako 300 ikaslerekin. Hauetan, giza eskubideak landu ziren laburmetrai batzuen bidez eta dinamika parte-hartzaileak erabiliz.
- 6 > [Legazpin](#), azaroaren 29an, bertako zine-klubarekin lankidetzan *Zubiak* dokumentala eskaini zen, eta ondoren solasaldia egin zen Maixabel Lasarekin. Abenduaren 4ean *Memoria inklusiboa: erronkak eta zailtasunak* izenburupean hitzaldi bat egin zen Jon Mirena Landa katedradunarekin.
- 7 > [Andoainean](#), abenduaren 19an, *S(u/a)minetik bakera* ikus-entzunezko proposamen eszenikoa antolatu zen Basteron. Programazioaren bigarren zatia urtarrilean egin zen.

Elkartasun arloa: Izeba proiektua

- 8 > Urteko bigarren sehileko honetan zehar, Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutelapean dauden adin-txikiko pertsonen eta pertsona edo familia boluntarioen arteko 14 harreman berri ezarri dira. Hala, 58 harreman aktiborekin bukatzen da urtea Izeba Proiektuaren baitan. Gainera, beste 88 gaztek harremana mantentzen dute beren Izeba familiekin, tutela etenda egon arren (gehienak adin nagusikoak izateagatik).
- 9 > Sehileko honetan Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Adingabeak eta familiak Sailarekin harremanak hasi dira Izeba Proiektua Araban abiatu eta ezartzeko pausoak aztertzeko.
- 10 > Irailaren 28an Izeba Proiektuko Partaideen XIX. Topaketa egin genuen Zerainen. Programarekin lotutako 55 pertsona bertaratu ginen eguna elkarrekin pasatzeko. Egunaren lehen zatian formakuntza eta partaidetzarako talde-dinamikak egin ziren, balorazio positiboarekin. Ondoren Aizpeako meategietara bisita egin zen paisaia ezagutu eta garai bateko meatzarien lanaz ikasteko. Topaketa Zeraingo Ostatu jatatxean egindako bazkari batekin bukatu zen.
- 11 > Izeba Proiektuaren 10. urteurrena dela eta, Zerbitzuan aldizkari espezializatuan (zerbitzu sozialen aldizkaria) artikulu bat argitaratu zen: "Izeba Proiektua: Gipuzkoan tutelapean dauden adin-txikiko pertsonen eta pertsona edo familia boluntarioen arteko harremanen hamarkadari begirada". Bertan, programaren ibilbidea errepasatzen da sortu zenetik gaur arte, eta egindako azken ikerketak eta proiektuaren emaitzak ere aipatzen dira. [Hemen irakur daiteke](#).

Formakuntza arloa

- 12 > "Gatazken prebentziorako sormenezko tresnak" izeneko [tailerrak](#) eskaini dira Gipuzkoako aisialdiko begiraleei eta Gazteleku eta Haurtxokoetako hezitzaile eta teknikariei zuzenduta, Baketik GFArekin duen hitzarmenari esker.
- 13 > Jantokietako eta jolastokietako zaintzaileei zuzenduta, "Gatazken prebentziorako sormenezko tresnak" tailerraren hainbat saio antolatu dira Gipuzkoa eta Bizkaiko zentro ezberdinetan [Mahi-Mahi Askoraren](#) bidez.
- 14 > Azaroan, GFAREN partaidetza sailak eta Elhuyar Fundazioak eskatuta, ikastaro berri bat antolatu zen: "Gatazken lantze etikoak. Komunikazio eraginkorra eta bitartekaritza". Bertan, Gipuzkoako partaidetza eta gizarte ekintza arloetako udal teknikariek parte hartu zuten. Gatazken inguruko oinarritzko kontzeptuak landu ziren eta komunikazio-tresnetan eta bitartekaritzan sakondu zen. Antolatzailerek positiboki baloratu zuen ikastaroa.

Hezkuntza arloa

- 15 > Sehileko honetan Baketikek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuarekin eta Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Kooperazioaren Idazkaritza Orokorrarekin elkarlanean jarraitu du, biktima hezitzaileen testigantzen Adi-adian ekimenean parte hartuz biktimen aurrez aurreko testigantzak erraztuz. Guztira biktimen 9 saiotan aritu gara laguntzen eta 2500 ikasle ingururenagana iritsi gara 2019an.
- 16 > Bigarren sehileko honetan Giza eskubideen eta Euskal Herriko historia hurbilaren inguruko hainbat formakuntza saio egin ditugu, EHUko ikasleei zuzenduta. Euskal Herriko historia hurbilaren inguruan gazteek duten ezagutza faltaren aurrean, formakuntza hauekin jarraitzeko beharra ikusten dugu, ahalik eta gazte gehienengana iristeko.
- 17 > Antzerki-forumaren arloan, irailean hiru aktorek osatutako lan-talde berri bat prestatu zen, antzezteaz gain saioetako tailerrak bideratzen dituztenak. Guztira 34 saio antolatu dira, horrela banatuta:
- 7 saio eskola jazarpena saihesteko Antzerki Forumarenak izan dira, "Sararen istorioa" antzezlanean oinarrituta, eta Gipuzkoako ikastetxeetan egin dira (horietako batzuk Gipuzkoako hainbat udaletan abian dagoen "Bizikidetzeta lantzen" proiektuen barnean). Beste 19 saio bide-segurtasunaren ingurukoak izan dira, Fideliza-ri esker antolatuak. "Zure azalean" aniztasunaren inguruko obrari dagokionez, 4 saio antolatu dira Gipuzkoan. Azkenik, Nafarroako Antzoki Sareari esker, eskola jazarpenari eta aniztasunari buruzko 4 saio egin dira Nafarroan.
- 18 >
- 19 > "Bizikidetzeta lantzen" programaren baitan, Legazpiko Haztegi Ikastolako irakasleei ikastaro bat eman zaie "Komunikazio eta esku-hartze eraginkorra gatazken lantze etikorako" izenburupean. Hiru saioak osatu zuten, eta teoria zein praktika landu ziren.
- 20 > Gurasoen Elkarteak eskatuta eta Beasaingo Udalarekin lankidetzan "Zinea tresna pedagogiko bezala" izeneko proiektu pilotua jarri zen abian lehen hezkuntzako haurrei zuzenduta. Azaroaren 30ean egin zen ekintza Igartzia Jauregian: "Chihiroren bidiaia" pelikula ikusi ondoren, sormenean oinarritutako tailer pedagogiko bat egin zen pelikulako edukiak lantzeko.

Zine zerbitzua

- 21 > Baketikek hamar film berri gehitu dizkio hobeto bizi, elkarbizi eta hezteko zinemarako Bideotekari, eta haien gida didaktikoak ere egin ditu. Zerbitzu honetako pelikulak Baketiken egoitzan daude, nahi dute pertsona, talde edo zentro doako maileguan hartzeko. Honakoak dira gehitutako izenburuak: *Recuerdos desde Fukushima*, *Coco*, *Tomboy*, *Rara*, *Green book*, *Techo y comida*, *El hijo de Saul*, *La librería*, *Vitoria 3 de marzo*, *Soinujolearen semea / El hijo del acordeonista*.
- 22 > Baita ere, urtero bezala, bestalde Baketiken Bideoklub zerbitzutik hobeto bizi eta elkarbizitzeko aukeraturako hamar film bidali zaizkie bazkideei. Aurten 60€-koa izan den kuota baten truke, edozein pertsona, ikas- tetxe edo erakundek film sorta bat eta horien gida didaktikoak jasotzen ditu urte amaieran. Hau izan da 2019ko aukeraketa: *Senders de gloria*, *La vida de Pi*, *La Misión*, *La ley del silencio*, *La gran ilusión*, *La espalda del mundo*, *Cinema Paradiso*, *Cartas desde Iwo Jima*, *Adivina quién viene esta noche*, *Rompe Ralph*.